



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Udalbatzak, bi mila eta hogeta bateko urtarrilaren hogeita zortzian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA ARRETA-SARE PUBLIKO ANTOLATU GISA DEFENDATZEA.

Honela dio:

EH Bilduk "Gizarte zerbitzuen Euskal Sistema, arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzea" izenez aurkeztutako mozioa dela eta, EAJ-PNV eta PSE.EE alderdi politikoek adierazpen hau aurkezten dugu:

- *Tolosako Udalak berretsi egiten du Gizarte Zerbitzuen izaera publikoa, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoa, jasotzen duen bezala. Eta Gizarte Zerbitzu horiek hobetzen eta sendotzen lan egiteko konpromisoa hartzen du, gure Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren funtsezko pieza gisa.*
- *Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren lehen ebaluazioa partekatu eta azter dezala. Lehen ebaluazio horrek bigarren plana bideratzeko oinarritzko dokumentua izan behar du.*
- *Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio EAeko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egin dezala.*
- *Tolosako Udalak uste du, Gizarte Zerbitzuen Legean jasotakoari eta honi buruzko Dekretuan garatutakoari jarraiki, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa modu mugatua erabili behar dela, orokortu gabe.*
- *Tolosako Udalak euskal erakunde guztiei eskatzen die lan egin dezatela gizarte-zerbitzuen garapena eta mantentzea bermatzeko finantzaketa nahikoa eta iraunkorra izango duen eredu adostu batean."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.



TOLOSAKO
UDALA

2021IPLE0001

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du EAJ/PNV eta PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeko.

Hau guztia adierazten dizut, Tolosan, bi mila eta hogeita bateko otsailaren bostean.

Idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IMOZ0003-2021-01-28 Osoko bilkurako ebazpena/2021-01-28 Osoko